

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Gauegiz-Arteagako Udala****Gauegiz Arteagako Bake Epaitegiko Bake-Epaile titularra eta ordezkoa hautatzeko eskabideak aurkezteko epea irekitzea.**

Gauegiz Arteagako Udalak 2020-00402 espedientea ireki du bake epaile titularra eta ordezkoa hautatzeko.

Horrenbestez, jakinarazten da eskabideak aurkezteko epea irekitzen dela. Epe hori hamabost egun baliodunekoa izango da, iragarki hau Probintziako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera.

Bake-epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduaren 13. artikulua eta hurrengo artikuluek adierazitako gaitasun eta bateragarritasun baldintzak betetzen dituzten interesdunak eskabidea jaso eta udaletxeko sarrera-erregistroan aurkeztu ahal izango dute (Herriko Enparantza, 1, Gauegiz Arteaga, 9:00etatik 14:00etara).

Hori guztia bake-epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduaren 5.1 artikuluan xedatutakoaren arabera argitaratzen da.

Gauegiz Arteagan, 2020ko azaroaren 10ean. — Alkatea, Juan Félix Naberan Ozamiz